

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4537

AGINDUA, 2013ko urriaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) udalerrian Kirol Irakaskuntzako ikastetxe baimendu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena emateko dena.

Aztertu da «Ibar Ezkerra Ikastola, S. Coop.» entitatearen legezko ordezkariak aurkeztutako baimen-eskaera, Bilboko udalerrian Salbamendu eta Sorospeneko modalitateko Kirol Irakaskuntzako ikastetxe bat irekitzeko eta jardunean jartzeko.

Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak espediente horri, indarrean dauden arauak eskatutako agiriak erantsi zaizkio, eta gai horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, araubide bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena (azaroaren 8ko BOE); ekainaren 24ko 878/2011 Errege Dekretua, Salbamendu eta Sorospeneko kirol-teknikariaren titulua ezarri, eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak eta sarbide-baldintzak finkatzen dituena (uztailaren 22ko BOE); ekainaren 24ko 879/2011 Errege Dekretua, Salbamendu eta Sorospeneko goi-mailako kirol-teknikariaren titulua ezarri, eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak eta sarbide-baldintzak finkatzen dituena (uztailaren 23ko BOE), eta gai horretan aplikatu beharreko indarreko araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2013-2014 ikasturtetik aurrera jarraian zehazten den ikastetxe pribatua irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena ematen da:

Kode-zenbakia: 48018749.

Izen generikoa: Kirol Irakaskuntzako Ikastetxe Baimendua.

Izen espezifikoa: «Harrobia».

Titularra: Ibar Ezkerra Ikastola, S. Coop.

Helbidea: Harrobia plaza, 4.

Udalerria: Bilbao.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Baimentzen diren irakaskuntzak:

- Kirol-irakaskuntzak:

- Modalitatea: Salbamendu eta Sorospena:

- Erdi-maila: Salbamendu eta Sorospeneko espezialitatea: 2 talde, 30 ikaspostu.

- Goi-maila: Salbamendu eta Sorospeneko espezialitatea: talde 1, 30 ikaspostu.

2. artikulua.— Ikastetxeak indarrean dagoen araudia bete beharko du, agindu honen bidez baimentzen zaizkion irakaskuntzak emateko eskatzen diren ikaspostuen kopuruari, espazio eta ekipamenduei eta irakasleen titulazio akademikoari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.— Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.— Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 23. artikulua arabera, emandako baimena baliogabetu egingo da, ikastetxeak baimena emateko indarreko araudian ezarritako gutxieneko baldintzaren bat betetzen ez duenean.

5. artikulua.— Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, eta agindu hone-tan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 3a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.